


Programazio eta unitate didaktikoari buruzko azalpenak eta aholkuak

2017ko EPE



AURKIBIDEA

- 1. IDAZTEN HASI AURRETIK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
- 2. PROGRAMAZIOA ETA UNITATE DIDAKTIKOAK AURKEZTU BEHARREKO LANAREN AURKIBIDEA ARDATZ HARTUTA
- 3. PROGRAMAZIOAREN ETA UNITATEAREN DEFENTSA

1. IDAZTEN HASI AURRETIK

1. DEIALDIAK DIOENA

7.1.2.– Bigarren proba. Helburua izango da izangaiaren gaitasun pedagogikoa eta irakaskuntzan aritzeko teknikak nola menderatzen dituen egiaztatzea. Proba horretan, izangaiak programazio didaktiko bat aurkeztu, eta unitate didaktiko bat prestatu eta ahoz azaldu beharko du.

7.1.2.1.– A. Programazio didaktiko bat aurkeztea. Programazio didaktikoa EAEn indarrean den eta parte hartzen den espezialitateari lotutako arlo edo eremu (Haur Hezkuntzako espezialitaterako) baten curriculumari buruzkoa izango da, eta honako alderdi hauek azaldu beharko dira:

Helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta adierazleak, metodologia eta gaitasunak eskuratzeari egiten dion ekarpena, bai eta aniztasunerako arreta ere.

Irakasleak ikasturte bat garatuko du programazioan, espezialitatea emateko eskumena duen hezkuntza maila edo etapa bateko ikasturte bat. Programazioa deialdi honen III. eranskinean jasota dagoen araudian ezarritako indarrean dauden curriculum-ei buruzkoa izan beharko da.

Haur Hezkuntza eta PT

- **Haur Hezkuntza** espezialitatean, izangaiak **programazio didaktikoa eremu bakar bati edo bi eremuei buruz egin ahal izango du.**
- **Pedagogia Terapeutikoa** espezialitatean, **programazioa ikasturte bateko jarduera-programa baten eta izangaiak hautatutako Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntzako maila baten garapenari buruzkoa izango da.** Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen artean kasu zehatz bat garatuko da, eta ikasle baten edo ikasle-talde txiki baten premietan oinarritu beharko da, erreferentzia gisa eskola-testuingurua eta horren ikasgelaren eta ikastetxearen hezkuntza-planteamenduak hartuta. **Programazio didaktikoa antolatu behar den unitate didaktikoak batik bat arlo instrumentaletakoak izango dira.**

Entzumena eta Hizkuntza

- Entzumena eta Hizkuntza espezialitatean, programazioa ikasturte bateko jarduera-programa baten eta izangaiak hautatutako Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntzako maila baten garapenari buruzkoa izango da. Hezkuntza-premia bereziak eta/edo komunikazioan eta hizkuntzan atzerapen handiak dituzten ikasleen artean kasu zehatz bat garatuko da, eta ikasle baten edo batzuen premietan oinarritu beharko da, erreferentzia gisa eskola-testuingurua eta horren ikasgelaren eta ikastetxearen hezkuntza-planteamenduak hartuta

Formatoa eta Luzera

- **DIN-A4 formatuko 50 folio izango ditu gehienera ere, alde bakarretik idatzita, espazio bikoitzean, eta «arial» motako letran idatzita, 12 puntuko tamainan (taula, koadro, eskema edo halakorik izango balu, horiek ere bete beharko dituzte betekizunak). 9 unitate didaktiko izan beharko ditu gutxienez, eta zenbakituta eta garatuta egon beharko dute, lehenago adierazitako alderdietako bakoitzean. Ez da eranskinik sartuko. Programazio didaktikoaren azala eta aurkibidea ez dira 50 folioen barruan zenbatuko, eta ez dituzte adierazitako betekizunak bete behar. Epaimahaiak antzematen badu ez duela betetzen aurreko lerrokadan ezarritakoa, bigarren probaren A zati honen puntuazioan penalizazio bat aplikatuko du, Hautaketa Batzordeak ezarritako irizpideei jarraikiz. Programazio didaktikoa epaimahaiari 7.2.1 oinarrian ezarritakoaren arabera emango zaio, eta izangaiari programazioa defendatzeko deitzen zaionean defendatuko du epaimahaiaren aurrean.**

- **Baten batek epean ez badu entregatzen programazio didaktikoa 7.2.1 oinarrian adierazitakoaren arabera, hautaketa-prozeduran ezingo du jarraitu, eta bertatik kanpo geratuko da.**
- Izangaiek ezingo dute material osagarririk erabili programazio didaktikoa aurkezteko eta defendatzeko (publikoa izango da); izangaiek emandako programazio didaktikoaren kopia berdina bakarrik izango dute.

Unitate didaktikoei buruz

Unitate didaktiko bat prestatzea eta epaimahaiaren aurrean ahoz aurkeztea izangai bakoitzak aurkeztutako programazioarekin lotuta egon daiteke edo espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik landuta; izangaiak berak hautatuko du. Lehenengo kasuan, programaziotik ausaz aterako dituen hiru unitate didaktikoren artean aukeratuko du unitate didaktikoaren edukia. Bigarren kasuan, espezialitatearen gai-zerrenda ofizialetik izangaiak ausaz ateratako hiru gairen artean aukeratuko du unitate didaktikoaren edukia.

Unitate didaktiko hori prestatzerakoan, honako alderdi hauek zehaztu beharko dira: lortu nahi diren ikaskuntza-helburuak, edukiak, gelan planteatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak, ebaluazio irizpideak eta adierazleak eta nola garatu gaitasunak.

Erabili beharreko Curriculumuma

- Lehen Hezkuntza – 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15).
** Bai programazio didaktikoa, baita unitate didaktikoa ere, egin behar dira 236/2015 Dekretuan Lehen Hezkuntzarako ezarritakoa kontutan izanda (236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena), eta horrek lotzen duen oinarrizko legerian (126/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa).
-

Hezkuntza Saileko web orriaren ondorengo estekan dagoen Curriculum orientatzailea erabili ahal izango da:

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> → Heziberri 2020 Plana –
> Heziberri 2020 Planaren egitasmoak → Bigarren egitasmoa:
Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum Dekretuak (Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza eta Batxilergoa) → Oinarrizko Hezkuntzarako curriculum Dekretua → Oinarrizko Hezkuntza.
236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea

Haur Hezkuntza – 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (EHAA, 2016-01-15).

DEIALDIA ONGI IRAKURRI ONDOREN

- Idazten hasi baino lehen kontuan hartu beharrekoa:
 - ❑ Ez ahaztu testuingurua. Hau da, oposaketa bateko parte da. Aztertzaileak kideak dira.
 - ❑ Programazioa testu bakar eta “osoa” da. Koherentzia eta kohesioa behar beharrezkoak dira. Ez da nahiko edukia zaintzearekin. Ez ahaztu sarrera, atalen arteko loturak, ideia bat paragrafo bat kontzeptua.
 - ❑ Hau da: erraz irakurtzen den testua izan behar da.
 - ❑ Errespetatu mugak eta kontuan hartu tauletako letra tamaina ere bera izan behar duela.
 - ❑ Programazioak asmo hezitzailea izan behar du. Horretarako komeni da argi izatea zein diren gure programazioaren hezkuntza oinarriak.

2. PROGRAMAZIOA ETA UNITATE DIDAKTIKOAK AURKEZTU BEHARREKO LANAREN AURKIBIDEA ARDATZ HARTUTA

□ Programazioaren Aurkibidea

1. Sarrera:

- Zer da programazio bat? Justifikazio legala: HEZIBERRI...

2. Ikastetxea:

- Inguruaren deskripzioa: herri edo hiriaren egora fisiko eta sozio-ekonomikoa...
- Ikastetxearen deskripzioa eta antolakuntza: HP, UPO, ...

3. ikasgela eta ikasleak:

- Aukeratutako taldearen deskripzioa eta adin horretako ikasleen ezaugarri psikoebolutiboak.

4. PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

- Oinarrizko kompetentziak
- Arloko etapako helburuak
- Arloko EDUKIAK
- Unitate edo sekuentzia didaktikoak
 - DENBORALIZAZIOA
 - UNITATEAK **9**

5. Metodologia:

- Printzipio metodologikoak: orokorrak eta arlokoak.
- Heziketako uneak
- Espazio eta denboraren antolakuntzarako irizpideak
- Materialak eta baliabideak
- Tutoretza plana eta familiekiko hartu-emanak
 - Irteerak, kanpaldiak eta osagarriak.

6. Ebaluazioa:

- Ebaluazioaren ezaugarriak-planteamendua
- Ebaluazio-Irizpideak
- Lorpen-adierazleak
- Ebaluatzeko materialak eta kanpoko frogak
- Ondorioak

7. Aniztasunaren trataera.

8.-Bibliografia

AURKIBIDEA

- Komeni da egitea, argi izateko zein diren aurrera eramango ditugun atalak.
- Kontuan hartu deialdiak SOILIK

Helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta adierazleak, metodologia eta gaitasunak eskuratzeari egiten dion ekarpena, bai eta aniztasunerako arreta ere.

- Baina, komeni da beste atal batzuk gehitzea gure programazioa TESTUINGURU bati egokitzeko.

1. SARRERA

- ❑ Aurkibideaz gain komeni da sarrera bat egitea. Bertan programazioan aztertzaileak aurkituko dituen atalen berri emango du. Hau da, zein hurrenkeratan, zergatik, zer eransten dion atal bakoitzak gure ikaskuntza-irakaskuntza prozesuei.....
- ❑ Zein arlo eta maila aukeratu ditugun ere aipatzeko egokia da.
- ❑ Sarrera on bat egiteak aukera emango digu gerora gure programazioa antolatzeko.

1.1 JUSTIFIKAZIOA

1.1.1. JUSTIFIKAZIOA IKUSPEGI TEORIKOTIK.

- Hau da, zertarako programatzen dugu?:
 - http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/comunicaciones_centros/eu_inspec/adjuntos/Programazio_didaktikoak_orientabideak_LH_eta_DBH.pdf
 - PROGRAMAZIOAK EGITEKO GIDA

1.1 JUSTIFIKAZIOA

1.1.2 JUSTIFIKAZIOA LEGE ETA ARAU IKUSPEGITIK

- Zeintzuk dira gure programazioa osatzeko erabiliko ditugun lege eta arauak?
 - Heziberri:
<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>
 - 126/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa
- Puntu honetan gure programazioa egiteko erabiliko dugun curriculuma zehaztuko dugu. Kontuan hartu HEZIBERRIren egitura eta orain arte publikatutako curriculum eta dokumentuak.

2. TESTUINGURURATZEA

2.1. IKASTETXEA

- ❑ Ikastetxeak ez dira ezerezetik sortutako erakundeak. Errealitate jakin bati erantzuten dioten erakundeak dira. Bere ingurunearen beharrei erantzun eta errealitatea eraldatzeko asmo dutenak.
- ❑ Zer idatzi puntu honetan?
 - ❑ Ikuspuntu sistemikotik gure ikasleen errealitatea ulertzeko testuingurua aztertu behar dugu. Zein herritan kokatzen da? Biztanle kopurua? Errealitate sozio-ekonomikoa? Zein auzotan dago kokatua? Zer nolako auzoa da?
 - ❑ Euskararen egoera? Auzoaren parte hartzea eskolan?
 - ❑ Gure ikastetxea nolakoa da? Zenbat lerro? Non

❑ Ikastetxeak plan bereziak ditu? IKKI, Sarean edo heldutasun digitalean? Agenda 21? Proiektuak lan egiten dugu?

❑ Horretaz gain Harrera Planak, Hizkuntza Proiektua, Tutoretza plana....

2.2.BALIABIDEAK

❑ 2.2.1. BALIABIDE PERTSONALAK: irakasle taldea, orientazio taldeko kideak, berritzegunea...


❑ 2.2.2. BALIABIDE MATERIALAK: zer nolako gela dugun, zer aukera eskaintzen dizkigun, zer beste baliabide ditugu eskolan gure jardunerako...

3. IKASLE TALDEA


- ❑ Gure taldearen ezaugarri nagusiak aipatu beharko ditugu. Zenbat neska eta mutil, jatorria, premia bereziak.....
- ❑ Gure ikasleen ezaugarri psikoebolutiboak.

4. PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Curriculum diseinuaren osagaiak



KONPETENTZIAK HEZIBERRIN: OINARRIZKO HEZKUNTZA



OINARRIZKO KONPETENTZIAK

236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, oinarrizko

konpetentzien ondorengo definizioa jasotzen du:

“ ELGE erakundeko DeSeCo txostenak (2005) hau adierazten du: «Ezagutzen eta trebetasunen multzo bat baino zerbait gehiago da konpetentzia. Eskakizun konplexuei erantzuteko abilezia darabil, eta baliabide psikosozialak hartzen eta baliatzen ditu, trebetasun eta jarrerekin batera, testuinguru jakinetan».”

Aipatu dekretuak, oinarrizko konpetentziak bi multzotan banatzen ditu:

1. Oinarrizko zehar-konpetentziak edo orokorrak: bizitzako esparru eta egoera guztietan -esparru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan- arazo-egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren konpetentziak dira, bai diziplina-erlo guztietako egoeretan, bai eguneroko bizitzako egoeretan. Arlo edo ikasgai guztietan orotara egindako lanaren bidez sustatu eta indartu behar dira zehar-konpetentziak, eta bizitzako esparru eta egoera guztietan integratu edo barneratuz eskuratzen eta erabiltzen dira.

2. Diziplina baitako/arteko oinarriko kompetentziak edo kompetentzia espezifikoak:

bizitzako esparru eta egoeretan – esparru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan– arazo-egoerak eragin kortasunez ebazteko behar diren kompetentziak dira, eta, haietan, diziplina-arloen bateko berriazko balia bideak erabiltzen dira. Diziplina baitako kompetentziak diziplina-matize bat dute oinarri, eta arloen berezko arazo-egoeren bitartez eskuratzen dira; halere, badute transferentzia-gaitasunik eta funtzio anitzekoak dira, diziplina-arlo batekin edo batzuekin lotutako arazo-egoerak konpontzeko balia baitaitezke.

Oinarriko zehar-kompetentziak, diziplina-arloetan barneratzen diren neurrian, bitartekari edo eragile dira hezkuntza-helburuak lortzeko eta diziplina baitako oinarriko kompetentziak eskuratzeko. Horrenbestez, Europako Parlamentuak eta Batzordeak (2006) gomendatu eta Espainiako azken bi lege organikoek (2006, 2013) arautu dituzten oinarriko kompetentziak eskuratzeko eta hezkuntzaren xedeak erdiesteko bidea zabalzen da.

UNESCO	EUROPAR BATASUNA	LOE	175/2007 DEKRETUA (EAE)	ED 126/2014 (LOMCE)	HEZIBERRI 2020	
					Zehar-kompetentziak	Diziplina baitako kompetentziak
Ezagutzen ikastea	Ikasten ikastea	Ikasten ikastea	Ikasten ikasteko kompetentzia	Ikasten ikastea	Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	
Egiten ikastea	Ekimena eta ekintzaile-espirtua	Autonomia eta gizarte-ekimena	Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia	Ekimena eta ekintzaile-espirtua	Ekimenerako eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	
Elkarrekin bizitzen ikastea	Kompetentzia interpersonal a eta zibikoa	Gizarterako eta herritartasuneko kompetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	Gizarterako kompetentziak eta kompetentzia zibikoak	Elkarbizitzarako kompetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia
Izaten ikastea		Autonomia eta gizarte-ekimena	Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia		Izaten ikasteko kompetentzia	
	Ama hizkuntza	Hizkuntza-komunikazioa	Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Hizkuntza-komunikazioa	Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia	Hizkuntza- eta Literatura komunikaziorako kompetentzia
	Atzerriko hizkuntzak					
	Kompetentzia digitala	Informazioa tratatzeko kompetentzia eta kompetentzia digitala	Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko kompetentzia	Kompetentzia digitala		
	Matematika, Zientziak eta Teknologia	Matematika	Matematikarako kompetentzia	Kompetentzia matematikoa eta Zientziarako eta Teknologiarako kompetentziak		Matematikarako kompetentzia
		Ingurune fisikoaren ezaguera	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia			Zientziarako kompetentzia
	Kultura-kontzientzia eta adierazpena	Giza- eta arte-kulturarako kompetentzia	Giza- eta arte-kulturarako kompetentzia	Kultura-kontzientzia eta adierazpena		Teknologiarako kompetentzia
						Arterako kompetentzia
						Kompetentzia motorra

Oinarrizko kompetentzia espezifikoaren korrespondentzia Haur Hezkuntzako eremuekin eta Lehen Hezkuntzako arloekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiekin.

Oinarrizko kompetentzia espezifikoak	Haur-hezkuntzako eremuak	Lehen hezkuntzako arloak	Derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasgaiak
Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia	Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena	– Euskara eta Literatura – Gaztelania eta Literatura – Atzerriko Lehen Hizkuntza	– Euskara eta Literatura – Gaztelania eta Literatura – Atzerriko Lehen Hizkuntza – Atzerriko Bigarren Hizkuntza – Latina 4
Matematikarako kompetentzia	Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena eta Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera	Matematika	– Matematika – Matematika (ikaskuntza akademikoak edo aplikatuak aukera)
Zientziarako kompetentzia	Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera	Naturaren Zientziak	– Biologia eta Geologia – Fisika eta Kimika – Kultura Zientifikoa – Lan Jarduerari Aplikatutako Zientziak
Teknologiarako kompetentzia		Naturaren Zientziak	– Teknologia – Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
Kompetentzia sozial eta zibikoa	Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera	– Gizarte Zientziak – Balio sozial eta zibikoak/Erljioa	– Geografia eta Historia – Balio etikoak/Erljioa – Ekonomia – Ekintzaitza eta Enpresa Jardueretarako Hastapena –Kultura Klasikoa –Filosofia
Arterako kompetentzia	Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena	Arte Hezkuntza	– Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza – Musika – Arte Eszenikoak eta Dantza
Kompetentzia motorra	Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena	Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza

- Konpetentzien inguruko definizioak eta osagaiak irakurri. Izan ere, aukeratutako diziplina baitako konpetentzia bakoitzaren definizioa, osagaiak eta barne hartzen dituen arloak jasotzen ditu. Horietaz gain, arloaren eta ikasgaien ikuspegia ematen digu

Oinarrizko hezkuntzako zientzia konpetentziak honakoa dio besteak beste azken puntu horri buruz:

1.3.3.3.– Arlo eta ikasgaien ikuspegia.

Ikasgai horien edukien ezaugarri nagusia da enpirikoki aztertzen dutela mundu naturala; hori horrela, kontzeptuak eraikitzen dituzte eta haien arteko erlazioak bilatzen, eta horri esker, ereduak sor daitezke mundu naturala hobeto ulertzen laguntzeko. Eredu horien bidez, fenomeno naturalen portaera aurrean daiteke eta haien gainean esku hartu, baldin eta beharrezkoa baldin bada bizi-baldintzak hobetzeko.

4.2. HELBURUAK

- Helburuei dagokionez Esperientzia edo arloen barne azaltzen dira eta etapako helburu gisa planteatuak azaltzen dira. Adibideak:

Haur Hezkuntzan:

1.- NORTASUNAREN ERAIKUNTZAREN ETA
INGURUNE FISIKO ETA SOZIALAREN
EZAGUERAREN EREMUA

1.1.- Eremuaren ezaugarriak

1.2.- Etapako helburuak

1.3.- Edukiak

- 1.3.1.- Lehen zikloa

- 1.3.2.- Bigarren zikloa

- 1.4.- Ebaluazio-irizpide eta -adierazleak

4.3. EDUKIAK

Haur Hezkuntzako curriculumean edukiak esperientzia eremuen baitan azaltzen dira eta, ziklotan banatuak daude:

“1.3.– EDUKIAK.

1.3.0.– Eduki komunak.

Eremu guztiek komunak dituzten oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak. Edukien multzo honetan adierazitako jarrera eta prozeduren xede dira:

- Informazioa identifikatu, lortu eta berreskuratzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziaztea eta aztertzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, zehaztea, azaltzea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (arrazoiak ematea, justifikatzea, etab.). ...”

Hortik aurrera ziklo eta multzoka banatuak daude:

“1.3.1.– Lehen zikloko edukiak.

1. MULTZOA. Nortasuna eraikitzea

- Zentzumenak gorputza eta kanpo-errealitatea arakatzeko erabiltzea eta, arian-arian, zer sentrazio eta pertzepzio izaten dituen ezagutzea. ...”

Lehen Hezkuntzan Oinarrizko Diziplina Barneko Konpetentzien eta arloen baitan azaltzen dira:

1.1.2.2. Lehen Hezkuntzako 1. zikloko edukiak

1. MULTZOA. Eduki komunak

- Arlo guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak
- Eduki multzo honetako prozedura eta jarreraren xede dira:

Gure programazioari dagokionez, guk aukeratutako esperientzia eremu diziplina edo arloko edukiak hautatuko ditugu eta horiek aipatu. Kontuan hartu ziklo banaketa!

4.4. METODOLOGIA

9. artikulua.– Konpetentzien araberako hezkuntzaren printzipio metodologikoak.

Hezkuntza-eskumenak dituen sailak ondorengo printzipio hauetan oinarritutako metodologia bat sustatuko du:

1.– Inklusibitatea eta zuzentasuna aplikatzen direla bermatzeko, hezkuntza-eskumenak dituen sailak konpetentzia guztien garapena eta ikasle guztien arrakasta ongien bermatzen duten ikaskuntza- eta irakaskuntza-metodologiak sustatuko ditu.

2.– Konpetentzien araberako pedagogiak ezaugarri nagusi hauek ditu:

- a) Problema-egoerak konpontzea, eskura dauden baliabideak modu integratuan erabiliz.
- b) Eskolaren xede nagusia ez da informazioak eta ezagutzak transmititzea, oinarrizko konpetentziak garatzea baizik.
- c) Adierazpenezko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak baliabideak dira, baina ezinbestekoak dira problema-egoerak konpontzeko.
- d) Oinarrizko konpetentziak garatu ahal izateko, egoera errealetako jarduerak proposatu behar dira, eguneroko bizitzako problema nagusiak jakintzarekin lotuz.

e) Oinarrizko kompetentziak ganoraz ikasteko, ikasleak modu aktiboan inplikatu behar du jakintza bilatzen, ikasten, esperimentatzen, hausnartzen, aplikatzen eta komunikatzen.

f) Gaitasunak garatzeko, irakaslea ikasleen ikaskuntzaren tutorea da, eta, horretarako, haien ikaskuntza-prozesuak diseinatu, planifikatu, antolatu, estimulatu, lagundu, ebaluatu eta birbideratu behar ditu.

Bertan, arazo egoeren aldeko apustua egiten du curriculum berriak. Horrek ez du esan nahi horren aldeko apustua egin behar denik. Deialdian ez du aipatzen nola osatu behar diren, baina bai unitateak gutxienez jaso behar dituen atalak:

Unitate didaktiko hori prestatzerakoan, honako alderdi hauek zehaztu beharko dira: lortu nahi diren ikaskuntza-helburuak, edukiak, gelan planteatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak, ebaluazio irizpideak eta adierazleak eta nola garatu gaitasunak. Baina, oso interesgarria irakaskuntza-ikaskuntzako metodologia aktibo gisa.

Berritzeguneek eta departamenduak informazio ugari: [Arazo egoerak](#)

Zer gehiago hartu behar dugu kontuan? Hizkuntzen Tratamendu Integratua; Ikasketa

Kooperatiboa (IKKI); IKT baliabideak ([http://hezkuntza.blog.euskadi.eus/blog/tag/ikt-](http://hezkuntza.blog.euskadi.eus/blog/tag/ikt-baliabideak)

baliabideak)

Azken horiei dagokienez, gogoratu txertatzeaz. Heziberrik hitzez eta hitzik gabeko kompetentziaren baitan kokatzen baditu ere, curriculum osoan agertzen dira.

[DIGCOMP](http://digitala.berritzegunenagusia.eus/home-page/) ereduari kasu eman (<http://digitala.berritzegunenagusia.eus/home-page/>).

Aurten ikastetxe gehienak Heldutasun teknologikoaren ereduan sartu dira.

5. UNITATE EDO SEKUENTZIAK

- ESKEMA:

UNITATEAREN IZENBURUA

Ikasgaia:

Maila:

Sekuentzia edo unitate zenbakia:

Gaia:

Saio kopurua

Proposamenaren justifikazioa:

Arazo-egoera:

A. Testuingurua:

B. Arazoa:

C. Helburua:

Eginkizuna edo ataza:

Oinarrizko kompetentziak:

A. Zeharkakoak:

B. Diziplina-kompetentziak:

Helburu didaktikoak:

Edukiak:

Jardueren sekuentzia:

A. Hasierako fasea:

B. Garapenaren fasea:

C. Aplikazio eta komunikazioaren fasea:

D. Orokortzea eta transferentzia:

Aniztasunaren trataera:

<p>Ebaluazioa</p> <p>A. Adierazleak:</p> <p>B. Tresnak:</p>

Jarduerak edo atazak	Oinarrizko kompetentziekiko loturak												
	a	b	c	d	e	1	2	3	4	5	6	7	

<p>Oinarrizko zehar-kompetentziak</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia. b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. c) Elkarbizitzarako kompetentzia. d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia. e) Izaten ikasteko kompetentzia. 	<p>Diziplina barruko oinarrizko kompetentziak.</p> <ul style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. 2. Matematikarako kompetentzia. 3. Zientziarako kompetentzia. 4. Teknologiarako kompetentzia. 5. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia. 6. Arterako kompetentzia. 7. Kompetentzia motorra.
--	--

□ Autoebaluaziorako tresna

Arazo egoeretan oinarritutako unitateak eginez gero, adibideak honako helbidean topa ditzakezue:

<http://heziberri.berritzegunenagusia.eus/4-unitate-didaktikoen-adibideak/lehen-hezkuntzako-unitate-didaktikoak-i/>

- Landuko ditugun gaien bidez ikasturte oso bateko arlo baten programazioa landuko dugu. Beraz, aurre-lanketa bat egon behar da. Nola banatuko ditut gaiak? Zein izango da sekuentziak lotuko dituen ildoak? Zenbat aste hartuko ditu unitate bakoitzak?

Gogoratu deialdiak dioena: **Unitate didaktiko hori prestatzerakoan, honako alderdi hauek zehaztu beharko dira: lortu nahi diren ikaskuntza-helburuak, edukiak, gelan planteatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak, ebaluazio irizpideak eta adierazleak eta nola garatu gaitasunak**

6. EBALUAZIOA

□ Ebaluazioaren atal honetan ebaluazio planteamendu bat egin behar dugu. Zertan oinarritzen gara ebaluatzeko garaian? Zer planteamendu pedagogiko dago?

- Ebaluazio planteamendua: Heziberriren arabera. Bertan azaltzen zaigu zer den ebaluazioa konpetentzien arabera hezkuntzaren ikuspegitik.

“Ebaluazioaren edukiak Oinarrizko konpetentzia guztiak, zehar-konpetentziak eta diziplina barnekoak, ebaluatu behar dira konpetentzien arabera hezkuntzaren ikuspegian, guztiak baitira beharrezko hezkuntza xedek erdiesteko. Diziplina barneko oinarrizko konpetentzia baten edo batzuen integrazioegoera espezifikoak nola betetzen diren ikusita ebalua daitezke diziplina barneko oinarrizko konpetentziak. Bestalde, ezin dira zuzenean ebaluatu oinarrizko zehar-konpetentziak. Konpetentzia horiek ebaluatzeko, ikasleak diziplina barneko oinarrizko konpetentzien integrazio-egoeretan nola integratzen dituen ikusi behar da.

Horrenbestez, oinarrizko kompetentziak ebaluatzeko, ikasleari agindutako zereginetan ezinbestekoa izan behar du zehar-izaerako prozedurak eta jarrerak baliatzea, eta berariaz jaso behar dira horiek guztiak lorpen-adierazleetan.

Bizitzarako oinarrizko kompetentzien araberako ebaluazioa "ebaluazio autentikoa" deritzon ikuspegiarekin lotzen da –bizitzako egoera konplexuak simulatzen dituen zereginak planteatzen ditu ebaluazioaren ikuspegi horrek– , eta ikuspegi hori bat dator "testuinguruan errotutako ikaskuntza" deritzon ikuspegiarekin – ikasitakoak lotzeko eta bizitza errealean aplikatzeko aukerak eman nahi dizkie ikasleei ebaluazio modu horrek–. Nornahik eguneroko bizitzan aurre egin behar izaten dituen ohiko egoerekin lotuta planteatzen da ebaluazioa, beraz.

Konpetentziak ebaluatzeko, ikasleak askotariko jakintzak erabiltzen dakien egiaztatu behar da, hau da, jakintzak ikasgelan landutakoez besteko testuinguruetan kokatutako egoerak interpretatu eta ebazteko erabiltzen dakien ikusi behar da.

Horrenbestez, ebaluaziorako integrazio-egoera espezifikoak sortu behar dira, errealitatekoak simulatuta. Egoera horietan, jakintzak koherentziaz eta eraginkortasunez mobilizatzeko gauza direla erakusteko aukera izan behar dute ikasleek. Ebaluazioak, era berean, ekintza konpetenteak egiteko behar diren baliabide ugari eta askotarikoak eskuratu diren ebaluatu behar du. Alde horretatik, garrantzi handikoa da ikasleak adierazpenezko ezagueren edukiak barneratu dituen ebaluatzea, baina horien pareko garrantzia dutenez, ebaluatu beharrekoak dira, era berean, prozedurazko eta jarrerazko edukiak ere.

- Konpetentzien araberako ikuspegia hartzen duen hezkuntza-sistemak beti hartu behar du kontuan, ikasleen kalifikazioak zehaztean, baliabideen eskurapenaren ebaluazioari baino garrantzi edo pisu erlatibo handiagoa eman behar zaiola integrazio-egoera konplexuen ebazpenaren ebaluazioari”.

Ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak

Ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak Ikasleak zer ikasi duen balioesteko irizpideak edo erreferenteak dira ebaluazio-irizpideak.

Lorpen-adierazleek jokabide behagarri bihurtzen dituzte ebaluazio-irizpideak, eta, ondorioz, haiek dira ebaluazioaren erreferentzia gailena. Izenak berak adierazten duen moduan, ebaluazio-irizpideek finkatutako lorpena zer probabilitaterekin iritsi den balioesteko zantzu edo seinaleak adierazten dituzte lorpen-adierazleek.

Ebaluazio-irizpidea erdietsi izanaren probabilitate maila zehazteko, lortutzat emandako adierazleen kopuruari eta haien egokitasunari erreparatuko zaio.

Adibidea:

2.1.3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

2.1.3.1. Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

1. Matematikako lanerako jarrera positiboa izatea, kalkuluen aurkezpen txukuna eta ordenatua balioestea, eta konfiantza izatea norberaren aukeretan eta ikaskuntzako erronkak eta erroreak gainditzeko.

- Matematikako jarduerak egiteko interesa agertzen du.
- Irmo jarduten du problemen soluzioa bilatzen.
- Gainerakoen azalpenak errespetatzen ditu.
- Matematikako lanak txukun eta ordenan aurkezten ditu.
- Matematikako jarduerak egitean, konfiantza du bere buruarengan.
- Matematikako zailtasunen eta erronken aurrean, ekimena eta gainditzeko gogoia erakusten du.
- Matematikako jarduerak egitean, autonomia erakusten du.

- Ebaluazio planteamendua eta ebaluazio irizpide eta lorpen adierazleez gain zer hartu behar dugu kontuan:
 - Kalifikazioak
 - Ebaluazioaren ondorioak
 - Tresnak
 - Uneak
 -
- Heziberrik planteatzen duen ebaluazio planteamendua osatu daiteke beste ebaluazio hezitzaile eredu batzuekin.

ANIZTASUNAREN TRATAERA

Atal honetan aniztasunaren tratamenduari buruzko marko teoriko bat jasotzeaz gain, eskuhartzeez aritu behar gara.

Lagungarri izango zaizkigun zenbait material:

- ❑ Heziberriko lehen egintasmooan: 43-48.
orrietan azalpen osatu bat. MARKO PEDAGOGIKOA
- ❑ Aniztasunaren trataerari heltzeko orientabideak.
ORIENTABIDEAK
- ❑ Eskola Inklusiboaren plan estrategikoa.
PLAN ESTRATEGIKOA
- Ikasle etorkinen arreta plana eskola inklusiboaren baitan. ARRETA PLANA
- ❑ Eskola inklusiborako argitalpenak. BESTE

3. PROGRAMAZIOA ETA UNITATEEN DEFENTSA

3. PROGRAMAZIOAREN ETA UNITATEEN DEFENTSA

Unitate didaktiko prestatzeko, izangaiak ordubete eta hamabost minutu izango ditu. Prestatzeko eta azaltzeko (publikoa izango da), azalpen horretan lagungarri zaion material osagarria erabili ahal izango du-berak eraman beharko du materiala-bai eta gidoi bat ere -ezingo da izan folio bat bi aldetatik idatzita baino luzeago-; azalpena , eapimahaiari emango dio erabilitako gidodia.

- Izangaiak aldez aurretik aurkeztutako programazio didaktikoaren aurkezpena eta ahozko defentsa egingo du azalpenaren hasieran, hogeitun minutuan gehienez. Ondoren, unitate didaktikoa azalduko du, berrogeitun minutuan gehienez.
- Bola ateratakoan ordubete inguru izango duzue unitatearen defentsa egiteko.
- Nola prestatu? Programazioaren defentsarako gidoi bat prestatu eta entseguak egin. Bertan, zuen programazioaren alderdi sendoak nabarmendu. Sinetsi defendatzen duzuen horretan. Horretarako funtsezkoa da idatzi duzuen horrekin

MILA ESKER!